

DATU PERTSONALEN TRATAMENDURAKO INFORMAZIO POLITIKA

DATU PERTSONALEN ARLOKO INFORMAZIO POLITIKA: HERIOTZA ETA EGOERA BEREZIAK
Tratamenduaren arduraduna
AROGESTION AHORRO-JUBILACION, EPSV Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). IFZ V20658365 Telefonoa: 943 79 01 00 DATUAK BABESTEKO ORDEZKARIAREN HARREMANETARAKO DATUAK Helbide elektronikoa: dpo@lagunaro.es
Tratamenduaren helburua
Hildako bazkide oso edo arrunten prestazioak kudeatzeko tratatuko dira datuak: - Bazkide oso edo arruntak hiltzen badira, izaera horrekin edo prestazioaren hartzaile gisa, haiek izendatutako onuradunak edo onuradunek, ordainketa bakar gisa, heriotzaren unean eratuta daukaten eskubide metatua jasoko du/dute. - Egoera bereziak: onuradunik izendatu ez bada, onuradunak honako hauek izango dira, hurrenkera honetan: ezkontidea, ondorengoak, eta halakorik ez badago, indarrean dagoen legeriaren arabera oinordeko direnak.
Tratamenduaren legitimazioa
Prestazioaren onuradunen datuak legezko betebeharrak betez tratatuko dira, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikularekin eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearekin eta hura garatzen duten gainerako arauekin bat etorritik.
Datuen jatorria
Datuak interesdunarenak berarenak dira, eta, hala badagokio, bazkide babesleenak eta LagunAro EPSVrenak.
Datuak komunikatzea
Legez ezarritako betebeharrak betetzeko beharrezkoak diren erakunde publiko edo pribatuei jakinaraziko zaizkie datuak, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikularen arabera.
Era berean, datu pertsonalak LagunAro Servicios S. Coop.ek eta papera suntsitzeko zerbitzua ematen duen enpresak tratatuko dituzte, bai eta prestazioa behar bezala kudeatzeko behar den beste edozeinek ere, Arogestionen kontura eta haren jarraibideak betez.
Nazioarteko transferentziak
Ez dago aurreikusita zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik.
Datuak gordetzea

Datuak gorde egingo dira prestazioa ordaintzeko beharrezkoak diren bitartean, bai eta datuen tratamenduaren ondorioz sor litezkeen erantzukizunen preskripzio aldietan ere.

Eskubideak

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta lekualdatzeko, mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, baita ere, dagokionean, zure datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien xede ez izateko, LagunAroko datuak babesteko ordezkariaren aurrean, helbide elektroniko honetara jota: dpo@lagunaro.es edo posta helbide honen bidez: Jose Maria Arizmendiarrjeta pasealekua 1, PK 20500, Arrasate (Gipuzkoa). Uste baduzu zure eskubideak ez direla bete, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan erreklamazioa aurkezteko eskubidea daukazu.

Segurtasun neurriak

Datuak modu konfidentzialean tratatuko dira eta neurri tekniko eta antolaketa neurri egokiak aplikatuko dira, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datuen galera, suntsipen edo ustekabeko kaltearen aurkako babesa barne, arriskuaren araberako segurtasun maila bermatzeko.